

BESTELAKO XEDAPENAK

ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

825

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 10ekoa, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko «Auzolandegiak» programarako erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek aurkeztutako proiektuak onartzeko.

2024ko abenduaren 2an argitara eman zen EHAA 2024ko azaroaren 13ko Agindua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez dei egiten baitzaie Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi-asmorik gabeko entitate publiko eta pribatuei Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2025. urteko ediziorako proiektuak aurkezteko.

Aipatutako Aginduaren 7. oinarrian proiektuak baloratzeko ezarritako irizpideen arabera, Hautaketa Batzordeak, 2025eko otsailaren 5ean egindako bileran, erakunde publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek «Auzolandegiak» programaren 2025. urterako aurkeztutako proiektuak aztertu eta baloratu zituen, eta Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordeari proiektuak hautatzeko proposamena helarazi zion.

Deialdiaren Agindu horren 13. oinarrian ezarritakoaren arabera, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordeak «Auzolandegiak» programarako proiektuak onartzeko Ebazpena emango du, Hautaketa Batzordeak egindako proposamena ikusita.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean aipatzen diren proiektuak onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren «Auzolandegiak» programaren 2025. urteko ediziorako.

Bigarrena.– Ebazpen hau erakunde interesdun guztiei jakinaraztea, eta jakinarazi beharko zaie administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakiokela Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztiak ezagutu dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 10a.

Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordea,
XABIER LEGARRETA GABILONDO.

2025eko otsailaren 20a, osteguna

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko «Auzolandegiak» programarako onartu diren proiektuak

Eskaera egin duen entitateak	Auzolandegiaren proiektua	Auzolandegia non	LH	Lan-mota	Puntuak guztira	Onartutako txanda kopurua
Arraia-Maeztuko Udala	Berreskurapen arkeologikoa Korresko San Ildefonso asfaltoen fabriketan	Maeztu	Araba	Arkeologia eta ondare industrialia berreskuratzea	63	1
Asociación Tendel Elkartea	Zurekin, Otxarkoaga	Bilbao	Bizkaia	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	66	1
Lekeitioko Udala	Nagusiekin dinamizazioa Uribarren Abaroa egoitzan	Lekeitio	Bizkaia	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	66	2
APNABI-Autismo Bizkaia	Ingurune bat egokitzea espazio ludiko bat sortzeko	Derio	Bizkaia	Ingurumena	63	2
Muxikako Udala	Aintzinako oinezko bideak berreskuratzea	Muxika	Bizkaia	Ondarearen berreskurapena eta ingurumena	60	2
Gueñesko Udala	Gueñesko garbitokia garbitzea eta bere balioa nabarmentzea	Gueñes	Bizkaia	Udal ondare arkitektonikoa berreskuratzea	65	1
Berangoko Udala	Burdin Hesia kontserbatzea	Berango	Bizkaia	Ondare historikoa berreskuratzea eta ingurumena	63	1
Santurtziko Udala	Belaunaldi lagunkoiak	Santurtzi	Bizkaia	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	61	1
Bergarako Udala	Belaunaldi arteko trukaketa Mizpirualde Egoitzan	Bergara	Gipuzkoa	Hirugarren adineko pertsonen gizarte-dinamizazioa	66	2